

«Gizonek pribilegioen VIP txartela itzuli behar dute»

Blanca Fernández

Beti bizkor eta baikor

Feminismoa kalean eta ikasgeletan zabaldu duen ikertzaile, irakasle eta aktibista da. GITE elkartearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan egin du bere ibilbidea. Dena genero ikuspegiaren betaurrekoekin begiratzeko esaten digun irakasle bikaina da.

Testua: Reyes Ilintxeta

Argazkiak: Dani Blanco

Noiztik zara feminista?

Zientzia Politikoen Soziologiaren atala ikasi nuen Deustuko Unibertsitatean eta garai hartan hasi nintzen feminismoaren kontzientzia hartzen, 70eko hamarkadan. Irakasle emakume bakarra izan nuen, azken ikasturtean, eta emakume ikertzailek ez ziguten aipatu karrera osoan. Zerbait gertatzen zela konturatu nintzen. Nik banekien bazirela hainbat emakume ekarpen handiak egiten ari zirenak soziologiaren alorrean, baina ez ziren inon ere aipatzen edo ikasten. Ikasketak bukatutakoan nire lehenbiziko lan ordaindua Humanidades izeneko liburu-dendan izan zen Iruñean, eta han antolatu nuen giza eta gizarte zientzietako atala. Oso

interesgarria izan zen, oso liburu-denda gutxi zegoelako hemen, eta gainera, botere guztia eman zidatelako egoki ikusten nituen lan guztiak ekartzeko. Oraindik genero ikuspunturik ez genuen, baina bai interes handia iristen ziren feminismoaren inguruko liburu guztiengatik. Handik atera eta 1978an GITEren [Gizarte Ikerketarako Talde Eragilea, gaztelaniaz IPES] sorreran hartu nuen parte.

Zer helbururekin jarri zenuten abian GITE?

Hainbat esparrutako profesional talde bat bildu ginen: abokatuak, historialariak, ekonomistak, soziologoak... Hemen, kulturaren eta ikerkuntzan izuga-

Blanca Fernández Viguera

1951, Iruñea

Soziologoa, ikertzailea, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Langintza graduko irakaslea eta GITE elkartearen sortzaileetako bat da. NUPen Generoan Espezializazioa Diploma sortu zuen. Familia eta Taldeekiko Esku-hartze Sozialeko Masterrean genero ikuspuntua bultzatu zuen. Martxoan Nafarroako Gobernuaren lehen *Berdinna* saria jaso zuen. Nazio Batuen Erakundeak Pekinen (Txina) 1995ean antolatutako Emakumeei buruzko Munduko IV. Biltzarrean izan zen.



rrizko hutsunea zegoela uste genuen. Opuseko unibertitatearen esparru itxia besterik ez zegoen eta oso jendarte kontserbadorea zen. Garai hartan ezagunak ziren herri unibertsiteen eredia jarraituz, erabaki genuen hemen halako zerbait egitea. Horrela sortu genuen gizarte ikerketarako talde hau. Asmoa zen unibertsitatera joateko aukerarik izan ez zuen jendea-ri formakuntza eskaintzea, batez ere langileei, feministei, sindikalistei eta ekimen sozialetan zebiltzan pertsonen. Haien zuten lehentasuna. Arrakasta izugarria izan zen. Jendea ez zen ikasgeletan sartzen. Marxismoa, feminismoa, ekologismoa eta sexu heziketa jorratzen genituen, baita Nafarroako historia ere, baina Euskal Herriko tesuinguruan kokatuta. Bestalde, gure abokatu eta ekonomistek aholkua ematen zieten enpresa batzordeei eta sindikatuei, garai hartan ez zeuzkatelako egun dituzten baliabideak. Nik genero ikuspegia eta feminismoaren inguruko gaiak ematen nituen. Euskarazko klaseak ere ematen ziren. Azkar aldatzen ari zen gure gizarte hartan eskatzen zen guztia eskaintzen saiatu ginen, azken finean.

Gaur egun zein da GITEren egitekoa?

GITE beti egokitu da garaiko beharretara. Abian jarri genituen ikasketa lerro asko beste erakunde eta elkarteek hartu izan dituzte, Nafarroako Unibertsiteate Publikoak, adibidez. Feminismoa, genero teoria eta emakumeen lanen zabalkundeak, esate baterako, urtetan iraun du. GITEren Emakumeen Liburutegia eta Dokumentazio Gunea altxorra dira. 1985ean sortu genuen eta gero eta garrantzitsuagoa da. 15.000 lan biltzen ditu eta sarean dago Espainiako Estatuako eite bereko beste liburutegi guztiekin.

Alor honetan beste bi ekimen oso garrantzitsu sortu ditu GITEk: Iruñeko Zinea eta Emakumeen Nazioarteko Erakusketa, aurten 32. edizioa eginen duena, eta Feminismoen eskola, nire ahizpa Silviak abiarazi zuena eta egun Iruñeko Udalak bere egin duena GITE-rekin elkarlanean.

Feminismotik at, nazioarteko egoera soziopolitikoaren analisia eta giza eskubideen defentsa egiten duen atala ere oso bizkor ari da lanean gaur egun institutuan.

Feminismoa eta genero ikuspegia zuten lehendabiziko ikerketa ildoak jorratu zenuen Nafarroako Unibertsiteate Publikoan. Emakumeen pobretze ibilbideak zehaztu zenituzten, adibidez, eta adierazi zenuten emakumeak gizonak baino gehiago pobretzen direla. Zergatik gertatzen da hori?

Frogatuta dago emakume pobre gehiago dagoela gizon pobreak baino eta txirotasun desberdinak direla, gainera. Arrazoi nagusia mendekotasun ekonomikoa da. Egile batzuek diote ezkontza bera dela jatorria. Askotan ikusten da emakume bat banantzen denean edo bikotekiderik gabe gelditzen denean, pobretze bidean abiatzen dela. Hori, aldiz, ez zaie gizonei gertatzen. Guraso bakarra izatea eta bereziki neska gaztea izanda, nerabea izanda, pobreziaren arrazoi larrienetakotzat hartzen da Europan. Nerabe amak dira txartel guztiak erosi dituztenak pobreziaren eta bazterkeriaren bidean abiatzeko. Bereizten diren emakumeak ere, familiaren zama guztiarekin gelditzen dira. Hortaz, horrek haurren pobretzea dakar. Esan daiteke ezkontza bera dela emakumeak pobretzen dituen, eta dibortzioa edo bereizketa pobretzea bistaratzen dutenak. Ezkontzean emakumeek lan ibilbideak apurtzen dituzte, etxean gelditzen dira eta ondorioz pobretzen dira. Egile batzuek txirotze prozesuok zenbakitan jarri dituzte.

Zein balorazio egiten duzu feminismoan eman diren aurrerapausoez?

Feminismoak aldaketa sozial handiak ekarri ditu emakume eta gizateria osoarentzat. Garrantzitsuenak eskubide berdintasuna, sexu eta ugalketa eskubideen aitortpena eta familia patriarkalean eragindako krisia dira. Orain familia eredu desberdinak badirela onartzen da. Ezkontzea ez da bide bakarra. Ez dugu familia patriarkala desegin, baina asko aldarazi dugu. Familia eredu horri lehentasuna kentzea, menderatze-sumisio binomioa apurtzeko modu bakarra da. Hori da genero indarkeriaren aurka egiteko modua.

Aldaketa sozialean sinesten dut. Datuak begi-bistakoak dira eta argi dut bide honetan sakontzen jarraitu behar dugula. Orain %99ak feminismoaz hitz egiten du, hau da, maila sozial guztietako emakumeengana iritsi da, ez soilik maila ertain edo goi-mailako ema-



kumeengana. Ni harrিতuta nago. Bost urtetik hona aldaketa izugarria izan da. Lehen betikoak joaten ginen martxoaren 8ko manifestaziora, eta aurretik izugarria izan da, lehen aldiz greba kontzeptu berria zabaldu delako: bi lanak lotzen dituen greba. Lan produktiboa eta zaintza lana batera geldituz gero, mundu osoa geldiarazten dugu.

Oso garrantzitsua iruditzen zait gaurkako modu positiboan ikustea. Gazteei beti esaten diet sinesteko hemendik 30 urtera gerta daitezkeen aldaketak, nik neuk aldaketa izugarriak ikusi ditudalako. Aldaketok, hala ere, beste kontu bat ekarri dute: zer egingo dugu zaintza lanekin? Goi-mailako ikasketak egiteko eskubidea dugu, gizonak baino gehiago gara emakumeak unibertsitean, eta emaitza hobekak ditugu. Hala eta guztiz ere, lan merkatuarekiko gure harremana oso gatzakatsua da.



Zaintzuk dira erronkak?

Ondoko sei gaiak aipatuko ditut: egindakoa mantentzea; zaintza lanak; genero indarkeria; gorputza eta sexualitatea; identitate eta aukera sexualak; eta patriarkatua.

Lehenengoa eta nagusia da aldaketak mantentzea. Lasaituz gero, lorpen horietako asko gal genitzake izugarri azkar. Inork ez digu bermatzen lortu duguna mantendu ahal izaneko dugula betiko. 1995ean egin zen laugarren eta azken Emakumeen Nazioarteko Biltzarra, Nazio Batuen Erakundeak antolatua. 30.000 emakumek hartu zuten parte. Ez da biltzar gehiago egin beldurragatik, uste dutelako han adostu ziren gai batzuk berriz mahai gainean jarritz gero, zenbait herrialdek atzera egingen luketela. Sexualitatearen eta gorputzaren kontrolaren eskubideak onartzeko oso gaizki ibili ginen. Vaticanoak eta islamiarrek, bereziki, oso gogor jokatu zu-

ten. Azkenean emakumeen eskubideak giza eskubideak direla onartu zen, baina ozta-ozta.

Zaintza lanei eta lan munduari dago-kionez, lan merkatuan sartu gara, baina sistemaren egiturak aldatu gabe. Emakumeek ez dute alde batera utzi zaintza lana. Guk lan hori egitea interesatzen zaio kapitalismoari. Doan egiten dugu, horregatik gaude beti baldintza okerragoetan gizonen aurrean eta horregatik ez dugu benetako autonomia lortzen. Pertsonen zaintza botere publikoek hartu behar dute bere gain. Gizonek derrigorrezko aitatasun baimen berdinak ez dituzten bitartean ez dago ezer egiterik, adibidez. Lan merkatuaren kontzeptu orokorra aldatu behar da. Oso maskulinoa da. Hor ez dago zaintza lanik eta hori ez da erreala. Ez da ikuspuntu jasagarria. María Angeles Durán ikertzaile soziologoak neurtu du zenbat lanpostu sortu beharko lirakeen

sistema publikoak zaintza lan guztiei erantzuteko. 26 milioi lanpostu sortu beharko lirake eta egun Espainiako Estatuan 18 milioi pertsona ari dira lanean. Ekoizpen sozialaren bi hankak dira produktzioa eta ugalketa soziala.

Genero indarkeria nabarmendu nahi duzu.

Desberdintasunean oinarritutako sistema guztiek indarkeria dosi bat behar dute desberdintasun hori iraunarazteko. Sistema patriarkalak bere burua babesten du genero indarkeria erabilita. Eskubideetan aurrera egiten dugun heinean, indarkeria handitzen da, emakumeak "bere tokian jartzeko". Ez gara batere ongi lantzen ari gai hori. 2000-2015 bitartean 970 emakume hil zituzten Espainian. Gerra bat da, eta ez guk piztutakoa.

Gorputzaren eta sexualitatearen eskubidea da beste erronka bat. Aldarrikapen historikoa da. Sexualitatea bizi eta kalean libre mugitu ahal izatea, bidaiatzea... gure eskubideak dira. Sistema judizial patriarkala eta bere legeak etengabe ari dira gizonak babesten eta emakumeak erruduntzat jotzen. Ikargarria da.

Identitate eta aukera sexual desberdinak aitortzea. Hor ere erronka dugu?

Asko gelditzen da oraindik egiteko. Genero aginduak ikusi, identifikatu eta desobeditu behar ditugu. Feminitatea eta maskulinitatea nola bizi behar ditugun esaten digute. Zer gustatu behar zaigun eta zer aukeratu behar dugun esaten digute. Zerbait ari gara aurreratzen, baina gizarteak egiten duen eskaintzan genero aginduek hortxe segitzen dute. Nire ikasle gehien-gehienak neskek ziren, adibidez, eta ez da kasualitatea. Horren atzean genero agindu bat dago. Emakumeok alor publikoan bilatzen dugu pribatuan beti egin dugunaren proiektio bat, hau da, zaintza lana. Irakasleak, sanitarioak edo gizarte langileak gara. Genero aginduen emaitza da hori. Horren aurrean guk nahi ditugun genero ereduak sortu behar ditugu, maskulinitatik eta feminitatik ezaugarriak aukeratuz eta josiz.

Patriarkatuaz zer?

Patriarkatuak hor jarraitzen du. Orain patriarkatu demokratikoa dugu, eskubide asko onartu dira teoriarik, baina kristalezko sabaia ditugu. Patriarka-

tua eta kapitalismoa hertsiki lotuta daude. Barne Produktu Gordinaren erdia dohainik ematen diogu kapitalismoari. Kapitalismoari interesatzen zaio patriarkatua mantentzea. Soldaten arrakala ere bada beste dohaintza bat, emakumeok urtean bi hilabete ematen dizkiogu kapitalismoari. Pagotxa da, eta hor dago kokxa. Ekonomiaren ardatz nagusia ez da izan behar dirua irabaztea, baizik eta pertsonen ongizatea bermatzea.

Zein izan behar du gizonen zeregina feminismoan?

Jabetu behar dute zer irabaziko duten patriarkatua eta kapitalismoa aldatuta eta gurekin batera aldaketa egiteko prest egon behar dute. Gure feminismoa



Bada, gizonek pribilegioen VIP txartela itzuli behar dute.

Feminismoa modan egotea ona ala txarra da?

Nik nahiago dut modan egotea jazarria izatea baino. Askotan azalckerietan gelditzen dira, baina hala eta guztiz ere, iruditzen zait oso garrantzitsua dela premisa batzuk modu masiboan onartzea, nahiz eta telebistako hala-

ez da berdintasun kontua, aldaketa sozial sakona baizik. Sistema osoa aldatu nahi izan du eta ez soilik berdintasuna lortu. Gizonen pribilegioak galduko dituzte eta argi ikusi behar dute. Luis Boninok dio gizonen VIP txartel moduko bat dutela beti zainduta egoteko, arropa garbia izateko, bazkaria prestatua... Ez dakite nork eman dien, baina eman die.

ko saiotan izan. Beste mugimendu sozialak ez bezala, feminismoa jazarria, gutxietsia, iraindua, izan da askotan. Ez da gertatu sindikalismoarekin, adibidez. Horregatik nahiago dut jendea alde agertzea, modu fribolo samarrean bada ere. Agian oso baikorra naiz, baina nahiago dut hori, feminismoari min ematea baino. ■

CAF ELHUYAR SARIAK 2019

IGO TRENERA!

ANTOLATZAILAK: CAF, elhuyar, neiker

BABESLEAK: CAF, elhuyar, neiker

25 URTE

HELBIDE ELEKTRONIKOA: cafelhuyarsariak@elhuyar.eus

INFORMAZIOA ETA OINARRIAK: cafelhuyarsariak.elhuyar.eus

LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA: 2019ko otsailaren 14a